

infraganti ELTZIEGOKO GAITEROAK

Juan Carlos eta Juantxu Gomez anaiak, Jose Luis Gallegorekin batera, Eltziegoko Gaiteroak taldeko kideak dira, musikariak, gaita musika tresna gisa dagokion lekuan jartzen tematuta daudenak. Beti lagunez inguratuta egon direla diote, eta horri esker heldu omen diete hainbat erronkari. Duela bi urte Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin disko bat grabatu zuten.



Juan Carlos eta Juantxu Gomez, Eltziegoko Gaiteroak taldeko kideak.

Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

Arabako Errioxan bukatu dute mahatsa bitzen. Orain, upeltegietan dute lana. Upeltegi batean lan egiten du Juan Carlos Gomezek, eta larunbat goiza aprobe txatu du Gasteizera txangoa egiteko. Bertako Alde Zaharrean Juantxu anaia du zain, Gasteizko Musika Etxean irakasle aritzen dela-eta egunak Eltziego eta Gasteiz artean banatzen dituen. Eta biek ere zain dute GAUR8 goiz euritsu honetan. «Euri hau ona da, bota dezala», dio Juan Carlosek, baina berehala tabernara sartu dira. Jose Luis Gallego dan-

bor jotzailearekin batera, Eltziegoko Gaiteroak taldea osatzen dute.

Erreferentzia omen dira gaitaren munduan. Hori entzunda, Juan Carlos eta Juantxuk bizkarrara jaso eta eurak ez direla nor halakorik esateko diote. «Oso gaita jotzaile onak daude gaur egun leku guztietan: Nafarroan, Bizkaian, hemen...». Edonola ere, gaita jotzaile oso on horietako askok diote erreferentzia direla. Juan Carlos eta Juantxu, ordea, ez dira horregatik harrotzen, eta egin duten guztiaren atzean lan handia dagoela diote. Tradiziotik edanda, berritzeko gogoia eta ekina. Ia 40 urteko ibilbidea egin

dute dagoeneko. Ikusten ez den lan handia batetik, eta ikus daitekeen eta ikustea merezi duena, bestetik. «Eta lagun asko», solas osoan oso presente dituztenak.

Arabako Errioxan tradizio handia du gaitak, hango musika tresnarik garrantzitsuen izateraino. Gaitero ugari eta ezagunak izan dira Arabako Errioxan, adibidez Guardian eta Villabuenan. «Lezan ere izan dira, baina ez dago dokumentazio handirik», dio Juantxuk. Eltziegoren izandako azken gaiteroak Guardiakoak ziren: Jesus Martinez eta Jose Ignacio Bezares. Martinez hildakoan, Gasteizkoak joan ziren bi urtez, eta ondoren, bizpahiru urtez, Eltziegoren ez zen gaiterorik izan. 1977an, berriro izan zituzten gaiteroak, herrikoak gainera: Juan Carlos Gomez eta Jesus Fernandez, Juantxu Gomez danborrarenekin. «Ideologoa», Juan Carlosek dioenez, Jesus Fernandez izan zen, sasoi hartan Euskal Dantzarien Biltzarraren «Dantzariak» aldikariaren zuzendaria zena.

Hasiera gogorra izan zen. Juan Carlosek belarriz jotzen zuen, eta, erabiltzen zuten materiala, gaitaren mihia alegia, oso kaskarra: «lan handia eta etekin eskasa». Hona iritsita, komeni da argitzea gaita ez dela orkestrako edo bandako ohiko tresnak bezalako instrumentua, oso ezaugarri bereziak ditu-eta. Kanabera bikoitzeko mihia du eta soinua ateratzeko esfortzu handia eskatzen du, baita afinazio teknika bereziak ere. Juantxuren hitzetan, «kontuz ibiltzeko moduko» tresna da. Jesus Fernandez Bilbora joan zen lanera eta, taldea utzi behar izan zuenez, Juantxu gaita jotzen hasi zen; bien aitak, Juan Jose Gomezek, berriz, danborraren lagundu zien, bi urtez. Aitak Guardia eta Villabuenako gaiteroekin ere jo izan zuen. Behin, 1956an, Madrilgo feria batera joan zen, Villabuenako danbor jotzaileak upeltegian lanean hanka apurtu zuenean. Horrek pasadizo bat gogorarazi die anaia gaiteroei. 1985ean, Gasteizko jaietan jotzen ari zirela, makila batez lagunduta zebilen agure bat sumatu zuten atzetik segika. Halako batean, esan omen zien: «A ze potroak Lizarrako gaiteroonak!».

Ez zirela Lizarrakoak erantzun zioten, Eltziegokoak baizik, eta agureak: «Eltziegoren ez dago gaiterorik eta!». Haien izen-deiturak entzunda, gizon villabuenar hura konturatu zen nor ziren: berak lanean hanka apurtu zuenean bere ordezkari Madrilera joan zen danbor jotzailearen semeak. Juan Jose Gomezek gaita taldea uztean, Jose Luis Gallego hasi zen, gaur arte.

Ez zebiltzan sobera adoretuta, baina, 1980an, Jabier Lakuntza eta Jose Luis Fraile Iruñeko gaiteroekin harremanetan sartu ziren eta errotik aldatu zitzaizen jarduna. Esker onez hitz egiten dute Iruñeko gaiteroez. Material berria eskuratzeak eskaintzen zizkien aukerak zirela-eta, aurrean zuten bidea bestela ikusten hasi ziren. Gustura jotzen zuten, gaita maite zuten eta gero eta «saltsa» gehiagotan sartzen joan ziren. Bien bitartean solfeoa ere ikasi zuten, belarriz jotzeak dituen mugak gainditzeko, eta antzinarako egileen lanak ezagutu zituzten. Julian Romano XIX. mendeko Lizarrako gaitero eta konpositore handiaren musika belarriz jotzen zuten, eta partiturak irakurtzen hasi zirenean, konturatu ziren ahotsak nahastu egiten zituztela. Euren ustez, Romano lizarratarrak sekulako dimentsioa eman zion tresnari. Eta Romanoren eta beste batzuen musika ikertzen hasi ziren, hala nola Nicolas Garcia guardiarrarena. Halaber, Arabako gaitarako dantzak biltzeari ekin zioten.

«Dagoenari eutsi eta berritu» beharra dagoela uste dute, eta erakutsi ere, ondo asko erakutsi dute. Bestetik, beti izan dute argi gaita «beste musika tresnak bezalakotzat jo» beharko litzatekeela, eta ez funtzio jakin batzuetara mugatutako tresna bezala. Izan ere, Gomez anaiak gaiteroak dira, baina baita, edo batez ere, musikariak. «Banda batean batzuetan bakarlarik jotzen duzu, baina, beste batzuetan, beste guztien artean, eta orduan bat gehiago zara». Horregatik, gaitaren soinu bolumen handia kontuan izanda, gaita berezi batzuk egin zituzten, tutu estuagokoak, Iruñeko gaiteroekin batera. Julian Romanoren musika banda-

rekin jotzeko ere egina zela kon-
turatu ziren, eta tradizio hori,
gaita bandarekin jotzea, Jabier
Lakuntza eta Jose Luis Frailek be-
reskuratu zutela diote.

Beren lehen lan diskografikoa
gaitarekin jotzen diren Arabako
dantzak biltzea izan zen. 1987an
“Arabako Dantzak I” grabatu zu-
ten, eta 1997an, “Arabako Dantzak
II”, Errioxako eta Kuartangoko
dantzak, egun jotzen dituzten be-
zalaxe. Kuartango Añanako kua-
drillako eskualdea da, baina, Juan
Carlos eta Juantxuk diotenez, dis-
koan bildutako musika gaitarako
idatzia da, eta, beraz, eskualde
hartan ere seguruenera gaiteroak
izango ziren garai batean. 1997an,
berriz, Nicolas Garcia eta Jesus
Martinez Guardiako gaiteroen
partiturretatik hautatutako hain-
bat obra biltzen dituen diskoa
grabatu zuten. Ordurako ohituta
zeuden gaita musika bandetan
txertatzen, eta piezetako bat ban-
darako moldatuta grabatu zuten.
Beste bat, lagun batzuek osatuta-
ko bandarekin, The Latin Gasteiz
Band taldearekin, hain zuzen.
Haiekin grabatuko zuten bi urte
geroago Julian Romanoren ome-
nezko diskoa. Euskal Herri osoan
zehar gero eta gehiago jotzen zu-
ten, jaietan, kontzertuetan, antzi-
nako musikatik erritmo berrie-
netara. Ekitaldi askotara doan
joaten ziren; esate baterako, Ara-
ba Euskaraz eta gisako jaietara.
Eltziegoko Bandarekin zuzeneko
diskoa ere grabatu zuten; Naiara-
ko antzinako musikako jaialdian
parte hartu zuten, baita Peralada-
ko (Girona) jaialdian ere Daniel
Barenboin orkestra zuzendaria-
ren eta Monserrat Caballe sopra-
noaren ondoan. Bestetik, beste
musikari batzuekin zenbait kola-
borazio egin zituzten, hala nola
Maixa eta Ixiarrekin. Euskal He-
rriko hainbat musika bandarekin
ere jo zuten...

The Latin Gasteiz Band taldea-
rekin izandako esperientziak Zie-
koko Gaiteroak & Friends taldea
osatzea eraman zituen. Honako-
ak dira taldeko musikariak: Jon-
ko Sanchez (tuba), Jon Elozegi
(perkusioa), Juanma Saez (tron-
boi irristailuduna), Joseba Koldo
Perez de Heredia (bonbardinoa)
eta Gomez anaiak (gaita). 2000n
disko bat grabatu zuten, “¿Y por



Euskal Herriko jaietan ezinbestekoak dira gaiteroak. Juan Carlos eta Juantxu, Jose Luis Gallegorekin, Iruñean. GAUR8

izan omen zuten, behin eta be-
rriz aipatzen dituzten lagunak
direla-eta. Besteak beste, Euska-
diko Orkestra Sinfonikoko mol-
datzaileak, Eduardo eta Diego
Morena Eltziegoko eta Guardia-
ko musika banden zuzendariak,
Juanma Saez Ziekoko Gaiteroak
& Friends taldeko tronboi jotzai-
lea eta Bastidako Bandako zu-
zendaria, Iñaki Urkizu Bilboko
Udal Bandaren zuzendariordea...
Diskoa askotarikoa da, bolero
klasikoetatik Arabako dantzen
pot-pourri bateraino, Iparragi-
rreren “Trapu zaharrak” edo Xa-
bier Leteren “Xalbadorren herio-
tzean” doinu ezagunetatik Julian
Romanoren eta Nicolas Garcia-
ren konposizioetara.

Aurrera begira, Eltziegoren Eus-
kadiko Orkestra Sinfonikoarekin
kontzertu bat eskaintzea espero
dute, baina ez da kontu erraza.
Lehenik leku egoki bat aurkitu
behar dute, 80 musikari inguru
baitira guztira, eta, haiekin, nos-



«Euri hau ona da, bota dezala!». Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

**«Dagoenari eutsi eta berritu» beharra dagoela
uste dute, eta erakutsi ere, ondo asko erakutsi
dute. Bestetik, beti izan dute argi gaita «beste
musika tresnak bezalakotzat jo» behar dela**

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin egindako
diskoan denetik dago: boleroak, Arabako
dantzen pot-pourri bat, Iparragirrerren “Trapu
zaharrak”, Leteren “Xalbadorren heriotzean”...**

qué no?”, inpaktu eta arrakasta
handikoa. Bertan boleroak, paso-
dobreak eta ezohiko erritmoak
entzuten dira. Gaitarekin «zer-
bait desberdina egitearren» gra-
batu zuten. Ondoren, Cristina
Grelaren kolaborazioarekin, “Ra-
dio Vitoriaren 75. urteurrena” la-
na grabatu zuten.

Eta 2014an erronka handiari
aurre egin zioten: Euskadiko Or-
kestra Sinfonikoarekin diskoa
grabatzea. Gaita orkestra sinfo-
niko batean. Proiektuak diru as-
ko eta lan gehiago eskatzen zi-
tuen, baina ausartu ziren eta
pozik eta harro daude. Egoteko
modukoa da eta. Esfortzu fisiko
eta ekonomiko handia izan zen,
baina, hala ere, suerte handia

ki, instrumentu guztiak. Bestetik,
umeentzako gaita metodo bat
prestatzen ari dira, epe ertainean
argitaratzeko. Horretarako, Jabier
Lakuntzak eta Jose Luis Frailek
markatutako ildo jarraitzen ari
dira, eta euren ekarpena haurrei
gaita ikasketak erakargarriago
bihurtzea da. Azkenik, beste argi-
talpen bat ere badute gogoan,
Juan Carlosek idatzitako 80tik
gora pieza bilduko lituzkeena.

Kalean eta kontzertuetan ikus-
ten denaren atzean ordu askoko
ahalegina dago, lanetik irten os-
teko hiru orduko entsegu ugari.
Eta, batez ere, musika eta gaitare-
kiko maitasuna. •

Xabier Izaga Gonzalez